

SEXU-JAZARPENAREN

ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENAREN AURKAKO PROTOKOLOA

CONTROL DEL DOCUMENTO

Participantes

Tarea	Nombre	Cargo
Desarrollado por:	Imanol San Martin - Marije Gil	Berdintasun Batzordea
Actualizado por:	Raquel Lopez- Olympiaberrri	Kanpoko aholkularitza
Revisado por:	Imanol San Martin - Marije Gil – Matxalen Lauzirika Juan Jose Mendizabal	Berdintasun Batzordea Zuzendaritza nagusia Estrategia, Politika eta Kalitatea Ard.
Aprobado por:	Matxalen Lauzirika	Zuzendaritza nagusia

Memoria

Rev.	Fecha	Cambio producido sobre la revisión anterior
V01	2011ko azaroa	Dokumentuaren lehenengo bertsioa
V02	2019ko abendua	Langileria berrira eta azkenengo aldaketetara egokitzea
V03	2021ko uztaila	Araudia betetzea Datuen babesa eta plantilla berrira egokitzea

ÍNDICE

CONTROL DEL DOCUMENTO	2
1. PROTOKOLOAREN AURKEZPENA.....	4
2. PRINTZIPIOEN ADIERAZPENA.....	5
3. APLIKAZIO-EREMUA.....	6
4. ARAUDI APLIKAGARRIA ETA DEFINIZIOAK	7
4.1. Araudi aplikagarria	7
4.2. Definizioak.....	8
4.2.1. SEXU-JAZARPENA.....	8
4.2.2. SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA.....	9
5. BERME-PROZEDURA.....	10
5.1. Kexen eta/edo salaketen aurkezpena	10
5.2. Prozedura informala	12
5.3. Prozedura formala	13
6. ARAU-HAUSTEEN TIPIFIKAZIOA ETA ZEHAPENAK	17
7. DIBULGAZIO-POLITIKA	18
8. SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA	18
9. EBALUAZIOA ETA SEGIMENDUA	18
10. BIKTIMENTZAKO INFORMAZIOA	19
11. DATUEN BABESA.....	19
I. ERANSKINA AHOLKULARITZA KONFIDENTZIALA	20
II. ERANSKINA: KONFIDENTZIALTASUN-AKORDIOA.....	21
III. ERANSKINA: KEXA- ETA/EDO SALAKETA-EREDUA.....	22
IV. ERANSKINA: SALAKETAREN JAKINARAZPENA.....	24
V. ERANSKINA: ONDORIOEN TXOSTENA	25
VI. ERANSKINA - PL_ DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA	28

1. PROTOKOLOAREN AURKEZPENA

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko **3/2007 Lege Organikoak** ezartzen du enpresek sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dituztela, eta prozedura bereziak ezarri, horiek aurreikusteko eta halakoak jasan dituztenen kasuan kasuko salaketa eta erreklamazioak bideratzeko. Halaber, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak** gai bera aipatzen du eta 43. artikuluan ezartzen du euskal herri-administrazioek betebeharra dutela laguntza juridiko eta psikologiko urgentea, doakoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuerakoa bermatzeko jazarpen sexistaren biktima direnei.

Protokolo honek araudi-testuinguru horri erantzun nahi dio, baita ITELAZPIIn sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena aurreikustea ahalbidetzen duen tresna bat edukitzeko eta horrelako indarkeria gertatzen den kasuetan jarraitu beharreko prozedura bat ezartzeko beharrari ere.

Horretarako, EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundeak enpresentzat emandako azken eredu-proposamena erabili da (2016ko urrikoa), ITELAZPIren errealitatera egokituz. Egokitzapen hori gure erakundeko Berdintasun Batzordearen lan-saioen bitartez egin da.

2. PRINTZIOEN ADIERAZPENA

ITELAZPIk konpromiso irmoa dauka indarkeriarik gabeko lan-espazioak eskaintzearekin, non emakumezkoentzako eta gizonezkoentzako berdintasun-printzipioa errespetatzen den.

ITELAZPItik, sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren inguruko baieztapen hauek ezagutzen eta berresten ditugu:

SEXU-JAZARPENA ETA/EDO SEXUAN

- **Indarkeriazko** adierazpenak **lan-eremuan**.
- **Generoan oinarritutako bereizkeriaren** ondoriozko **egoera** suntsitzaileak.
- **Funtsezko eskubideei eraso egiten diete:** duintasuna, berdintasuna, osotasun fisiko eta morala, sexu-askatasuna eta lanerako eta lan-osasunerako eta segurtasunerako eskubidea.
- Pertsonen sexuaren arabera esleitutako **rol tradizionalen** ondoriozko **botere-harremanen adierazpenak**.

Horrenbestez, oso zorrotz adierazi nahi dugu gure antolakuntzan **EZ DUGULA JASATEN** horrelako indarkeriarik. Hortaz, **hauxe egiteko konpromisoa hartzen dugu:**

- **PROTOKOLO** honen bidez, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketan **prozedura ezartzea** eta hori behar bezalako bermekin aplikatzea. Gogorki zigortuz sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko jokabideak.
- Beharrezko **PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA** eskaintzea, ITELAZPI osatzen dugun pertsona guztiok jakin dezakegun beharrezkoa dela aipatutako eskubideen eskubiderik gorenean jardutea.
- Lan-arriskuen prebentzioaren esparruaren barruan, sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren **ARRISKUA EBALUATZEA** eta neurriak planifikatzea jazarpen-egoera gerta ez dadin.

Aurreko guztiaren erreferentziazko esparrua osatuko dute komunitate-, konstituzio-, erkidego- eta lan-arauek eta langileek lanean indarkeriarik gabeko lan-giroaz gozatzeko duten eskubideari buruzko adierazpenek.

3. APLIKAZIO-EREMUA

ITELAZPIk zuzendaritzak kudeatzen dituen lantoki guztietan zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztien lan-osasuna eta segurtasuna bermatzeko betebeharra dauka eta, horrez gain, eskuragarri dituen bitarteko guztiekin bermatu behar du osasunerako arriskurik gabeko lan-giroak daudela.

Horrenbestez, protokolo hau **honakoei aplikatuko zaie**:

- ✓ **ITELAZPIko langile guztiei**, zuzendaritzako kideak, praktiketako langileak eta/edo bekadunak barne.
- ✓ **ITELAZPIrentzat zerbitzuak ematen dituzten pertsonak**: kontratetako edo azpikontratetako langileak eta/edo Aldi Baterako Laneko Enpresetako langileak eta enpresarekin lotutako langile autonomoak.

Laneko indarkeriarekiko eta, zehazki, sexu-jazarpenarekiko eta sexuan oinarritutako jazarpenarekiko zero tolerantziako konpromisoaren eta gure jarduteko protokoloaren **BERRI EMANGO DIEGU** hauei:

- Gure lantokietan dauden langile guztiei (berezko langileak edo beste enpresa batzuetako langileak), horiei dagozkien enpresei eta gure langileak doazen enpresei

Hauxe **ESKATUKO DIEGU** aipatutako enpresei:

- Bere langileei gure politikaren eta jarduketa-protokoloaren berri emateko konpromisoa, hain zuzen ere, horren aplikazio-eremuaren barne daudelako.
- Enpresa horietan sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurka jarduteko berezko protokoloa dagoen jakinarazteko, hau da, jazarpenaren subjektu aktiboa enpresa horietakoren batekoa denean aplika daitekeen protokoloa. Bestalde, hala badagokio, protokoloa aplikatuko dutenaren konpromisoa eskatuko diegu.

ITELAZPIk protokolo hau erabat aplikatu ezin duenean ustezko jazarpenaren subjektu aktiboa bere zuzendaritza- edo eragin-boteretik kanpo dagoelako, enpresa eskudunera joko du horrek arazoa konpontzeko eta, hala badagokio, pertsona arduraduna zehatzeko. Horrekin batera, jakinaraziko zaio aurrekoa egiten ez badu bi enpresak lotzen dituen merkataritza-harremana iraungiko dela.

4. ARAUDI APLIKAGARRIA ETA DEFINIZIOAK

4.1. ARAUDI APLIKAGARRIA

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 LEGE ORGANIKOA

- bereizkeriatzat joko dira sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena **(7.3 artikulua)**;
- enpresak hauxe egitera behartuta daude: "enpresek sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dituzte, eta prozedura bereziak ezarri, horiek aurreikusteko eta halakoak jasan dituztenen kasuan kasuko salaketa eta erreklamazioak bideratzeko" **(48.1 artikulua)**;
- "xede horrekin, langileen ordezkariekin negoziatu beharko diren neurriak ezarri ahal izango dira, hala nola, jardunbide egokien kodeak egin eta zabaltzea, informazio-kanpainak gauzatzea edo prestakuntza-ekintzak gauzatzea" **(48.1 artikulua)**
- "Langileen ordezkariak lagundu beharko dute lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena aurreikusten, horren aurrean langileak sentsibilizatuz
 - eta enpresa-zuzendaritza informatuz eurek ezagutzen dituzten jokabideen eta jarreraren gainean, halakoek sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena eragin dezaketenean"
 - **(48.2 artikulua)**.

Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea

Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena lan-arrisku psikosozialak dira eta horiek jasaten dituztenen segurtasunean eta osasunean eragin dezakete. Zentzu horretan, enpresak behartuta daude langileen laneko osasuna eta segurtasuna babesteko beharrezkoak diren beste neurri hartzera. **(14. artikulua)**

Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua

Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena burutzen duten langileei dagokienez, gogorarazi behar da bi motatako jazarpenek eragiten dituztela kontratuaren ez-betetzeak eta gerta daitekeela horiek burutzen dituen langilearen diziplinazko kaleratzea eragitea. **(54. artikulua)**

4.2. DEFINIZIOAK

4.2.1. SEXU-JAZARPENA

Sexu-jazarpena "*sexu-jazarpena da sexu-izaerako jokabide bat sortzea, ahozkoa edo fisikoa, xede nahiz ondore izateagatik pertsonaren duintasunaren aurka egitea, batez ere, larderiakoa, apalesgarria edo ofentsakoa den ingurua sortzen denean*" (**Berdintasunari buruzko Lege**

Sexu-jazarpeneren berehalako xedea nolabaiteko sexu-asebetetzea lortzea da, baina azken helburua pertsona batek beste batengan duen boterea erakustea da, normalean gizonak emakumearengan duena. Horrela, oraindik ere gure gizartean existitzen diren botere-egiturak iraunarazten dira.

Sexu-jazarpentzat hartzen diren jokabideak **OSO LARRI** gisa sailka daitezke. Jarraian, sexu-jazarpeneren adibide batzuk aipatzen dira:

ADIBIDE BATZUK (SEXU-JAZARPENA):	
a)	Enplegua lortzeko, enpleguaren baldintzetako bat edo enplegua izaten jarraitzeko baldintza izatea biktimak sexu-mesederen bat egitea onartzea, nahiz eta baldintzapen horren mehatxu esplizitua edo inplizitua gauzatu ez (sexu-xantaia).
b)	Nahi ez den kontaktu fisikoa (ukituak, igurtziak, besarkadak, laztanak, atximur egitea...).
c)	Sexu-izaera iraingarria duten telefono-deiak, gutunak, mezuak edo argazkiak edota bestelakoak bidaltzea, sexu-izaeraren ingurukoak.
d)	Sexu-harremanak izateko presioa egitea eta hertsatzea.
e)	Sexu-iradokizunei edo eskaerei uko egin eta gero, errepresaliekkin mehatxatzea.
f)	Zigor Kodean ezarritako edozein sexu-eraso egitea.
g)	Errepresaliak hartzea jazarpenerak salatzen dituzten lagunen kontra edo jazarpeneren ikerketetan parte hartu, lagundu edo lekukotza egiten duten lagunen kontra, bai eta horrelako jokabideen aurka egiten dutenen aurka ere, euren buruez ari direla edo inori buruz ari direla.
h)	Keinu, soinu edo mugimendu lizunak behin eta berriz egitea.
i)	Bizitza sexualari buruzko galderak egitea.
j)	Zita bat behin eta berriro eskatzea dagoeneko ezezkoa eman denean.
k)	Behin eta berriz gehiegi hurbiltzea.
l)	Pertsona bati mugitzea eragozteko kontaktu fisikoa lortzeko.
m)	Zokoratzea, edo pertsona batekin bakarka gelditzea eragitea inolako beharrik gabe.
n)	Iradokizun sexualak egitea.

ADIBIDE BATZUK (SEXU-JAZARPENA):

- o)** Pertsona baten itxura fisikoari edo irudiari buruzko zein haren sexu-izaerari edo joerari buruzko komentarioak edo balorazioak egitea.
- p)** Presiorik gabe harreman sexualak eskatzea agerian.
- q)** Pertsona baten bizitza sexualari buruzko izaera sexualeko zurrumurruek zabaltzea.
- r)** Pertsonak modu klandestinoan edo ezkutuan ikuskatzea leku pribatuan, hala nola komunetan edo aldageletan.
- s)** Irudiak lanean eta/edo laneko ekipamenduetan erabiltzea (sexuaren ikuspegitik umiliagarriak, iradokitzaileak edo pornografikoak diren edukiak bistaratzea).
- t)** Izaera sexualeko txisteak edo lausenguak behin eta berriro egitea.
- u)** Norberaren trebetasun edo gaitasun sexuali buruz behin eta berriz hitz egitea.
- v)** Beste pertsona baten gorputzari behin eta berriz lizunki begiratzea.

4.2.2. SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA

Sexuan oinarritutako jazarpena: *"Sexuan oinarritutako jazarpena da pertsona jakin baten sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, xede nahiz ondore dituen pertsonaren duintasunaren aurka egitea eta larderiakoa, apalesgarria eta ofentsakoa den ingurua sortzea"*

Sexuan oinarritutako jazarpena nagusiek zein lankideek edo mendekoez eragin dezakete, eta genero-estereotipoak izan ohi dira eragile nagusiak; maiz sexu bateko pertsonak mespretxatzea du helburu, haren gaitasunak, konpetentzia teknikoak eta trebetasunak gutxietsiz. Normalean sexu batek bestea mendean hartzeko botere-egoera mantentzeko asmoz egiten da, eta sexueta bateko pertsonak lan-mundutik egozteak dute helburu.

Hainbat portaeren artean, jarraian adierazitako hauek sexuan oinarritutako jazarpenatzat har daitezke. Portaera hauek erabat onartu ezinak dira beti eta, gehienetan, portaera **OSO LARRIAK** dira.

ADIBIDE BATZUK (SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA):	
a)	Etengabeko gutxiespen publiko zein pribatuak pertsona bati buruz edo haren lanari, gaitasunari, konpetentzia teknikoei, trebetasunei... buruz sexua dela-eta.
b)	Adierazpen sexistak eta iraingarriak erabiltzea gaitasunak, konpetentziak edota trebetasunak gutxiesteko... (adibidez: "emakumezkoa izan behar" "harrikoa egiteko bakarrik balio duzu", "emakume, adi zure zereginet").
c)	Egindako ekarpenak, iruzkinak edo ekintzak pertsonaren sexuaren arabera alboratzea (bartzertzea, aintzat ez hartzea).
d)	Nagusien aginduei edo jarraibideei kasurik ez egitea, nagusiak emakumezkoak badira.
e)	Pertsona bati haren gaitasunari dagokion lanpostua edo betebeharra baino beheragoko bat ematea, sexua dela-eta.
f)	Lana zapuztea edo behar bezala egiteko bideak oztopatzea (informazioa, dokumentazioa, ekipamendua...).
g)	Pertsonak adingabeak balira bezala, mendekotasunen bat balute bezala, maila intelektual baxua... balute bezala tratatzea (hitz egiteko moduan, tratuan...) sexua dela-eta.
h)	Agindu iraingarriak ematea pertsonaren sexua dela-eta.
i)	Muturreko eta etengabeko zainketa dakarten jarrerak.
j)	Tradizioz beste sexuko pertsonak egin izan dituzten lanak hartzeagatik pertsonak barrengarri uztea.
k)	Pertsona bati dagozkion baimenak ukatzea, modu arbitrarioan eta sexua dela-eta.
l)	Umore sexista erabiltzea.
m)	Diskriminazioak egitea, sexua dela-eta.
n)	Indar fisikoa erabiltzea sexu bat beste bati gailentzen zaiola erakusteko.

5. BERME-PROZEDURA

Protokolo honen aplikazio-eremuan sartutako pertsona guztiek errespetatu beharko dute pertsonen duintasuna, sexu-jazarpeneko edo sexuan oinarritutako jazarpeneko jokabideak saihestuz. Edozein langilek jar dezake sexu-jazarpenari edo sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko kexa eta/edo salaketa bat, zehazki, jarraian arautzen den prozeduraren arabera.

5.1. KEXEN ETA/EDO SALAKETEN AURKEZPENA

Honakoek dute kexa eta/edo salaketa bat aurkezteko ahalmena:

- ✓ Protokolo honen aplikazio-eremuko **edozein langilek**.
- ✓ **Sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko egoeren berri duen beste edozein pertsonak**.

ITELAZPIK **"Aholkularitza konfidentziala"** izeneko organo bat eratu du, balizko kexak eta/edo salaketak jasotzeaz eta tratatzeaz arduratuko dena. Protokolo honen **I. ERANSKINEAN** zehaztuta daude organoaren osaera eta horren kideekin harremanetan jartzeko modua. Salatzailea horietako edozeinekin jarri ahalko da harremanetan.

Aholkularitza Konfidentzialak, behar izatekotan, **kontratutako kanpoko Prebentzio Zerbitzuaren laguntza eta aholkularitza edo aholkularitza juridiko espezifikoa eduki ahalko ditu**. Era berean, ITELAZPIK aholkularitza konfidentzialeko kideen prestakuntza egokia bermatuko du.

Aholkularitza Konfidentzialeko kideren batek ageriko adiskidetasun- edo areriotasun-harremana badauka aldeetakoren batekin eta/edo kexa eta/edo salaketaren parte bada, ikerketa horretarako baliogabetuko da. Kasuak eragiten ez dien Aholkularitza Konfidentzialeko pertsonak izendatuko dute baliogabetutako kidearen ordezkia.

Aholkularitza kexa eta/edo salaketa aurkezten duen pertsonaren sinesgarritasunetik abiatuko da kasu guztietan, **betiere babestuz prozeduraren konfidentzialtasuna eta pertsonen duintasuna**. Horretarako, prozedura bakoitzaren hasieran, ukitutako aldeei zenbaki-kodeak esleituko zaizkie, zehazki, tratatutako kasuak dokumentatze aldera.

Aholkularitza konfidentzialak kexa eta salaketa guztien **seriotasunik eta konfidentzialtasunik handiena** bermatu beharko du, **printzipio hori ez errespetatzeak zehapena eragingo duela ohartaraziz**. Horretarako, dagokien **"konfidentzialtasun-akordioa"** sinatuko dute **(II. ERANSKINA)**.

5.2. PROZEDURA INFORMALA

□ NOIZ eta NOLA?

Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako **jazarpena eragiten ez duten jarduketa edo jokabide sexisten aurrean.**

Kexa **ahoz edo idatziz aurkeztu ahal izango da**, salatzaillearen aukeran, Aholkularitza Konfidentzialeko edozein kideren aurrean, eta, hala badagokio, kexa-eta/edo salaketa-ereduaren formatuan **(III. ERANSKINA).**

*Aholkularitza Konfidentzialak jotzen bada jokabidea sexu-jazarpentzat edo sexuan oinarritutako **jazarpentzat sailka daitekeela**, ustezko biktimari **jakinaraziko dio prozedura formala abiarazteko beharra***

Uste bada jokabideak ez duela jazarpen-egoerarik eragiten baina jokabide sexista bat dela **eta denboran luzatzen bada sexu-jazarpeneko edo sexuan oinarritutako jazarpeneko egoerak eragin ditzakeela**, Aholkularitza Konfidentzialak **prozedura konfidentziala eta azkarra** abiaraziko du kexaren egiazkotasuna baieztatzeko. Horretarako, enpresaren edozein tokira sartu ahalko da edozein momentutan, baita berak egokitzen dituzten dituzten adierazpenak bildu ere.

□ JARDUKETA-JARRAIBIDEAK:

Aholkularitza Konfidentzialak hauxe egingo du aurkeztutako kexak egia-zantzuak dituela egiaztatu eta gero:

- **Kexa jarri zaion pertsonarekin jarriko da harremanetan modu konfidentzialean**, bakarka edo ustezko biktimak lagunduta (biktimak nahiago duena), eta jakinaraziko zaio, batetik, haren jarrerari buruzko kexa bat jaso dela eta egiazkoa bada eta aurrerantzean ere jarrera hori errepikatu eta mantentzen bada, sexu-jazarpentzat edo sexuan oinarritutako jazarpenentzat hartuko dela, eta, bestetik, egoera horrek ekar diezazkiokeen ondorio edo diziplina-zehapenen berri emango zaio.

Portaera sexista egotzi zaion pertsonak nahi dituen azalpenak emateko aukera izango du.

- **Besterik gabe, kexa jakinaraziko dio** eta portaera horrekin jarraitzearen **ondoriozko balizko diziplina-zehapenei buruzko informazioa emango dio.**

Helburua da **arazoa berehala eta behin betiko konpontzea**, sexu-jazarpeneko edo sexuan oinarritutako **jazarpeneko egoera bihur ez dadin eta, hortaz, diziplina-araubidea aplikatu behar ez izateko.** Izan ere, batzuetan, subjektu aktiboari jakinarazten zaizkionean haren portaera laidogarriak eta larderiazkoak eta horiek jazarpen bihurtuz gero izan ditzakeen ondorioak, aski izaten da arazoa konpontzeko.

□ EPEAK

Prozedura, **gehienez ere, zazpi laneguneko epean** garatuko da eta soilik salbuespenezko eta premia handiko kasuetan luzatu ahalko da epe hori hiru egun.

□ KOMUNIKAZIOA

Aholkularitza Konfidentzialak prozedura informalaren emaitzaren berri emango die berehala enpresako zuzendaritzari eta horren Administrazio-kontseiluari. Halaber, Berdintasun Batzordeari eta Lan-arriskuen arduradunari jakinaraziko zaie, betiere Aholkularitza Konfidentzialeko kide berak ez badira.

PROZEDURA INFORMALA

- KONFIDENTZIALTASUNA
- AZKARTASUNA
- KEXA HELARAZTEA
- EBAZPENA: 7 EGUN (Salbuespen gisa 10)

5.3. PROZEDURA FORMALA

□ NOIZ eta NOLA?

- ✓ Salatutako jarduketek **jazarpena eragiten duten** kasuetan.
- ✓ **Salatzailea arazoa konpontzeko prozedura informalean lortutako konponbidearekin pozik ez dagoenean:**
 - Eskainitako konponbidea desegokia iruditzen zaiolako
 - edo salatutako portaerak errepikatu daitezkelako
- ✓ Eta salatzaileak salatutako pertsonaren **balizko diziplina-erantzukizunak argitu** nahi dituztenean.

Prozedura hau erabiltzeak **ez du inola ere eragotziko biktimak** nahi duenean errekurritzea **Laneko Ikuskatzailetzaren eta Gizarte Segurantzaren Ikuskatzailetzaren** aurrean. Horrez gain, eskubidea du **auzibide zibilean edo lan-auzibidean** salatzeke edo **auzibide penalean kereila jartzeko**.

Salaketa idatziz egingo da (III. ERANSKINA) eta Aholkularitza Konfidentzialari bidaliko zaio. Biktimaz gain, jazarpen-egintza baten berri duen edozein pertsonak salatu ahalko du jarduketa hori.

□ **JARDUKETA-JARRAIBIDEAK:**

Aholkularitza konfidentzialak salaketaren iturria, natura eta seriotasuna aztertuko ditu eta, **zantzu nahikoak aurkitzen baditu, ofizioz jardungo du** salatutako egoera ikertuz, betiere inplikaturako pertsonen funtsezko eskubideak errespetatuz, batez ere bien **intimitaterako eta duintasunerako eskubidea**. Horrenbestez:

- **Modu konfidentzian jakinaraziko dio egoera enpresaren zuzendaritzari**, hala badagokio, **kautelazko neurriak har ditzan**. Posible denean, balizko kautelazko neurri hauek hartuko dira: jazarpenaren pertsona aktiboa zein pasiboa berehala urruntzea, biktimaren osasunerako eta osotasunerako egoera kaltegarria denboran luzatzea ekiditeko, baita txandaz aldatzea ere. Neurri horiek biktimari inoiz ere ez diote ekarriko lan-baldintzen kalte edo galerarik, ez eta haien funtsa aldatzea ere.
- **Berdintasun Batzordeari** salaketaren eta momentu horretara arte burututako jarduketan inguruko informazio nahikoa eskainiko dio.
- Ahalik eta lasterren jakinaraziko dio **salatutako pertsonari salaketaren aurkezpena**, hain zuzen ere, **IV. ERANSKINEKO** eredia jarraituz.
- Egitateen **ikerketa-prozesua** abiaraziko du, zehazki, baldintza eta jarraibide hauen arabera:
 - **Beharrezko bitartekoak** izango ditu eta kasuarekin lotutako **informazio eta dokumentazio guztia eskuratu ahalko du**.
 - Enpresako eta/edo egitateak gertatu diren lekuko **beharrezko geletarako sarbide librea** baimenduko zaio eta beharrezko laguntza eskainiko zaio.
 - Salatutako parte **entzungo da**, biktimaren aurrean edo ez, horrek aukeratzen duenaren arabera, edo, hala badagokio, salatzailaren aurrean; kasu horretan ere salatzailak aukeratuko du bertan egon nahi duen. Lekuko-froga egiteko, bai batak, bai besteak enpresako beste pertsona batzuk egotea eska dezakete.

Ahal izanez gero, **egitateei buruz biktimak duen azalpenaz soilik jasoko da informazioa**, salaketa berak egiten duenean (non eta ez den beharrezko gertatzen ondoren beste elkarrizketa batzuk egitea kasua ebazteko), eta konfidentziasuna eta arintasuna bermatuko da izapideetan.

- **Elkarrizketak egingo dizkie** lekuko gisa identifikatutako pertsona guztiei eta hirugarren pertsonari, horiek egotekotan. Deitutako pertsonak agertzeko eta ikerketan laguntzeko betebeharra izango dute.
- **Prozedura osoan zehar**, salatzaileak, salatutako pertsonak edo biktimak egoki deritzen **froga-bitarteko guztiak aurkeztu ahalko dituzte.**
- Egindako **elkarrizketa eta entzunaldi guztien akta** idatziko da eta horietan esku hartzen duten pertsona guztiek sinatuko dituzte. Aldi berean, pertsona horiei konfidentziasun-konpromisoa sinatzeko eskatuko zaie.

□ EPEAK

Ikerketa eta horren inguruko txostena aholkularitza konfidentzialak egingo ditu, **gehienez ere, hamar laneguneko epean** (3 egun luza daiteke salbuespenezko kasuetan), hain zuzen ere, salaketa aurkezten denetik zenbatzen hasita.

□ ONDORIOAK ETA EMAITZAK

Hauxe izango da aholkularitza konfidentzialak egindako **ondorioen txostenaren (V. ERANSKINA)** edukia:

- Salatutako egitateak.
- Burututako eginbideak.
- Ateratako ondorioak.
- Hala badagokio, antzemandako inguruabar astungarriak.
- Hala badagokio, dagozkien diziplina-neurrien proposamenak.

Txosten hau **berehala jakinaraziko zaio zuzendaritzari** eta horrek, hala badagokio, dagokion diziplina-espedientea burutuko du.

Egindako txostenean emandako ebazpenaren **berri emango zaio salatutako pertsonari eta pertsona salatzaileari zein biktimari**, pertsona desberdinak badira.

Aholkularitza konfidentziala salaketa oinarriduntzat hartzeko **beharrezkoak diren frogak biltzeko gai ez bada**, salatzailea, **biktima** denean, **ezingo da behartu bere borondatearen aurka salatutako pertsonarekin batera lan egitera**. Enpresako zuzendaritza behartuta dago lanpostuaren aldaketa erraztera, hori posible izatekotan.

❑ PROZESUAREN BERMEAK

- **Bermatu egin beharko da** jazarpenak salatzen dituzten lagunen kontrako edo jazarpenen ikerketetan parte hartu, lagundu edo lekukotza egiten duten lagunen kontrako **errepresaliarik ez egotea**, ezta horrelako jokabideen aurka egiten dutenen edo hori kritikatzan dutenen aurka ere, euren buruez ari direla edo inori buruz ari direla. Adierazitako subjektuentzat (salatzaileak, lekukoak edo laguntzaileak) tratamendu kaltegarria dakarten neurriak hartzea zehatu egingo da, dagokion diziiplina-araubidearen arabera.
- Aurrekoa gorabehera, **zehatu egingo dira nahita egindako iruzurrezko eta engainuzko salaketa**, alegazio edo adierazpenak, salatutako pertsonari justifikatu gabeko kaltea eragiteko egindakoak; horrez gain, zuzenbidearen arabera bidezkotzat jotzen diren beste ekintza batzuk ere **zehatu ahal izango dira**.
- Prozeduran zehar **biktimarentzat edo jazarpenaren salaketa jarri dutenentzat errepresaliak edo kalteren bat gertatuz gero, horiek guztiak oneratuko dira, gutxienez, aurretik zeuden baldintzetan**, eta egoera hori dela-eta abian jar daitekeen beste edozein prozedurari eta haietatik eratorritako ondorioei kalterik egin gabe.

❑ JARDUKETAK ETA ONDORIOZKO PREBENTZIO-NEURRIAK

- **Disuasio-helburuarekin**, egindako ikerketaren emaitzaren eta zehapen-espeditentzaren berri emango da jarduketa zehatzailea burututako eremuan, nolnahi ere, ukitutako pertsonen intimitaterako eskubidea errespetatuz.
- Gainera, aholkularitza konfidentzialak **prebentzio-neurriak proposa** ditzake egoera errepika ez dadin eta Arriskuen Prebentzioko arduradunak baliozkotu beharko ditu neurri horiek.
- Aldi berean, jazarpeneko egoeraren ikerketak **arriskuen ebaluazioa berrikusteko eta neurri berriak hartzeko informazioa** eman dezake.

PROZEDURA INFORMALA

- KONFIDENTZIALTASUNA ETA BERMEAK
- KAUTELAZKO NEURRIAK
- IKERKETA PROZESUA: Ondorioak eta neurriak
- EBAZPENA: 10 EGUN (Salbuespen gisa 13)
- PREBENTZIO-NEURRIAK

6. ARAU-HAUSTEEN TIPIFIKAZIOA ETA ZEHAPENAK

Sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko egintzak eta portaerak **arau-hauste oso larriak** dira eta sala daitekeen egitatea gertatzen denean indarrean dagoen Euskal Funtzio Publikoaren Legearen zehapen-araubidearen arabera zehatuko dira.

Nolanahi ere, honako inguruabar hauek **ASTUNGARRITZAT** hartuko dira:

INGURUABAR ASTUNGARRIAK	
a)	Nagusitasun hierarkikoaren egoeraz abusatzea edo biktimaren lan-baldintzen edo lan-harremanaren beraren gaineko erabakimena izatea jazarpena egiten duen pertsona.
b)	Portaera laidogarriak behin eta berriz izatea biktimak konponbiderako prozedurak martxan jarri eta gero.
c)	Maltzurkeria, hau da, bitartekoak, moduak edo formak erabiltzea zuzenean subjektu aktiboaren ukigabetasuna bermatzeko.
d)	Jazarlea berrerorlea bada sexu-jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena egiten.
e)	Bi biktima edo gehiago izatea.
f)	Biktimak desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoren bat izatea.
g)	Biktimak lehenagotik baieztatutako arazo medikoren bat duenean.
h)	Jazarleak biktimarekiko, lekukoekiko edota Aholkularitza Konfidentzialarekiko beldurtzeko jokabideak edo errepresaliak gauzatu dituela egiaztatzea.
i)	Langileak hautatzeko edo sustatzeko prozesuan zehar gertatzen direnean.
j)	Biktima, lekukoak edo haien laneko edo familiakoak presionatzea edo behartzea, ikerketa behar bezala egin ez dadin.
k)	Behin-behineko kontratazioan, bitarteko kontratuarekin, probaldian, bekadun edo praktiketan egotea.

7. DIBULGAZIO-POLITIKA

ITELAZPIk konpromisoa hartzen du protokolo hau honako pertsona edo erakunde hartzailerak jakinarazten zaiela bermatzeko:

HARTZAILEA	NOLA?	NOIZ?
ITELAZPIko langileak eta zuzendaritzako kideak	<ul style="list-style-type: none"> - Intraneten eskuragarri dagoen dokumentua. - Urteko komunikazioak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Protokoloa onestean eta/edo aldatzean. - Enpresan sartzerakoan. - Urteko oroigarria.
Praktiketako langileak eta/edo bekadunak	<ul style="list-style-type: none"> - Protokoloaren banakako entrega, harrera-eskuliburuarekin batera 	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresan sartzerakoan.
Zerbitzuren bat kontratatzen edo azpikontratatzeko enpresak	<ul style="list-style-type: none"> - Banakako entrega email bidez. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratu-harremana hastean eta/edo berritzean.
Bestelako kanpoko eragileak	<ul style="list-style-type: none"> - Webgunea (gure konpromisoak). 	<ul style="list-style-type: none"> - Etengabe (ITELAZPIren webgunea). - Sentsibilizazio-kanpaina bereziak.

8. SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

Bermatuko da ITELAZPIren berdintasunari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko **informazio- eta prestakuntza-politikak** lanean berdintasuna sustatzeari eta indarkeria prebenitzeari buruzko prestakuntza egokia jasotzen duela, zehazki, enpresaren maila guztietan.

Urtero, gure protokoloaren existentziaren **barne-oroigarria egingo da** eta, horrekin batera, sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko egoerekiko tolerantziarik ez izateko konpromisoa gogoraraziko da.

9. EBALUAZIOA ETA SEGIMENDUA

Aholkularitza konfidentzialak aurkeztutako salaketan eta espedienteen ebazpenaren kontrola burutuko du, bi urtean behin protokolo honen aplikazioaren inguruko segimendu-txosten bat idazte aldera. Txosten hau ere aurkeztuko zaio zuzendaritzari.

10. BIKTIMENTZAKO INFORMAZIOA

ITELAZPIK konpromisoa hartzen du salatutako egitatearen unean Euskal Autonomia Erkidegoan eskuragarri dauden zerbitzu publikoen inguruko informazioa emateko balizko biktimei, hain zuzen ere, horien babes eta berreskurapen egokia bermatze aldera.

11. DATUEN BABESA

Sexu-jazarpenari edo sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko salaketen postontzia espezifiko ez denez, baizik eta Aholkularitza Konfidentziala osatzen duten pertsonen postontzi pertsonala, salaketa bat jasotzen denean, salatzaileari datuen tratamenduaren berri emango zaio, eta horretarako Protokolo honen VI Eranskinean jasotako txantiloia erabiliko da. Informazio bera emango zaie salatuari eta salaketa ikertzeko prozesuan esku hartzen duten guztiei.

Salaketa anonimoa ez den kasuetan, salatzailearen konfidentzialtasuna gorde beharko da, eta salatuari ez zaio haren identifikaziorik emango.

Aholkularitza Konfidentzialeko kideek soilik eskuratu ahal izango dituzte salaketatik eta ondorengo ikerketatik sortutako espedientean dauden datuak. Hala ere, beste pertsona batzuk ere eskuratu ahal izango dituzte, edo hirugarrenei ere komunikatu ahal izango zaizkie, diziplina-neurriak hartzeko edo, hala badagokio, bidezko diren prozedura judizialak izapidetzeko beharrezkoa denean.

Salaketatik hiru hilabeteko epean suntsitu beharko dira datu horiek, kontserbazioaren helburua ereduaren funtzionamendua adierazteko edo errekerimendu judizial edo polizialei erantzuteko ez bada.

Protokoloa data honetatik aurrera sartuko da indarrean: .2020ko otsailaren 7an.

Protokolo hau 2020ko otsailaren 7an sartuko da indarrean.


Sinatura Miren Matxalen Lauzirika Jauregi
Zuzendari Nagusia

I. ERANSKINA AHOLKULARITZA KONFIDENTZIALA

Gaur egun, pertsona hauek osatzen dute aholkularitza konfidentziala:

Izen-abizenak	Kontaktua
Maria Jesús Gil Bellota	Emaila: mjgil@itelazpi.eus Telefonoa: 944 032 326 Mugikorra: 688671823
Imanol San Martin Ruiz	Emaila: isanmartin@itelazpi.eus Telefonoa: 688671834
Matxalen Lauzirika Jauregi	Emaila: ma-lauzirika@itelazpi.eus Telefonoa: 944 032 324

II. ERANSKINA: KONFIDENTZIALTASUN-AKORDIOA

	<p>SEXU-JAZARPENAREN ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENAREN AURKAKO PROTOKOLOA KONFIDENTZIALTASUN-AKORDIOA - AHOLKULARITZA KONFIDENTZIALA</p>
---	---

Jarraian zerrendatzen diren pertsonak:

Izen-abizenak	NAN

Aholkularitza konfidentziala da sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloaren esparruan jasotako kexak eta/edo salaketak jasotzeko, ikertzeko eta tratatzeko organo arduraduna eta, aholkularitzako kide gisa,

ERABAKI ETA KONPROMISO HAUEK HARTZEN DITUZTE:

- ITELAZPIIn sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko protokoloa aktibatzearen ondorioz ezagutu ditzaketen egitateen eta datu pertsonalen gaineko sekretua eta konfidentziasun zorroztzena mantentzea.
- Informaziorik ez ematea hirugarrenei, protokoloan bertan ezarritako helburuekin hertsiki lotutakoa izan ezik.

Hortaz, dokumentu hau sinatzen dute, Zamudion, 20..(e)koren(e)(a)n.

Izenak eta sinadurak:

Izpta.:


Izpta.:

Izpta.:

Izpta.:

Izpta.:

III. ERANSKINA: KEXA- ETA/EDO SALAKETA-EREDUA

	SEXU-JAZARPENAREN ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENAREN AURKAKO PROTOKOLOA KEXA- ETA/EDO SALAKETA-EREDUA			
Adierazi "x" batekin salatzaileak aktibatu nahi duen ekintza-mota		<table border="1"> <tr><td>Kexa</td></tr> <tr><td>Salaketa</td></tr> </table>	Kexa	Salaketa
Kexa				
Salaketa				
Kodea:				
SALATZAILEAREN DATUAK:				
	Ukitutako pertsona			
	Bestelakoak. Zehaztu:			
JAZARPEN-MOTA:				
	SEXU-JAZARPENA			
	SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA			
UKITUTAKO PERTSONAREN DATUAK:				
IZEN-ABIZENAK:				
NAN:	SEXUA:	EMAKUMEZKOA GIZONEZKOA		
BESTELAKO IDENTITATEAK				
LANPOSTUA:				
LANTOKIA/SAILA:				
LAN-HARREMANA/KONTRATU-MOTA:				
HARREMANETARAKO TELEFONO-ZENBAKIA:				
SALATUTAKO PERTSONAREN DATUAK:				
IZEN-ABIZENAK:				
NAN:	SEXUA:	EMAKUMEZKOA GIZONEZKOA		
BESTELAKO IDENTITATEAK				
LANPOSTUA:				
LANTOKIA/SAILA:				
LAN-HARREMANA/KONTRATU-MOTA:				
HARREMANETARAKO TELEFONO-ZENBAKIA:				
BIKTIMAREKIKO LAN-HARREMANA:	<input type="checkbox"/> Maila hierarkiko altuagoa <input type="checkbox"/> Maila hierarkiko bera <input type="checkbox"/> Maila hierarkiko baxuagoa <input type="checkbox"/> Bezeroak <input type="checkbox"/> Erakunde hornitzailea <input type="checkbox"/> Bestelakoak: _____			



SEXU-JAZARPENAREN ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENAREN
AURKAKO PROTOKOLOA
KEXA- ETA/EDO SALAKETA-EREDUA

GERTAEREN DESKRIBAPENA:

a. Lekukoak badaude, adierazi bere izen-abizenak:

b. Salaketarekin batera dokumentazioa eranstean bada. Mesedez, zerrendatu dokumentazio hori:


ESKAERA, sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako jarduketa-protokoloa abiarazteko eskatzen dut

Lekua eta data

Salatzailearen sinadura

Aholkularitza konfidentziala
(jasota)

IV. ERANSKINA: SALAKETAREN JAKINARAZPENA

	<p>SEXU-JAZARPENAREN ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENAREN AURKAKO PROTOKOLOA SALAKETAREN JAKINARAZPENA</p>
---	--

Honi zuzendutako jakinarazpena:

Izen-abizenak: _____ NAN: _____

Honen bidez, eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloan definitutako ITELAZPIren aholkularitza konfidentzialeko kide gisa, jakinarazten dizut, esparru honen barruan, zure aurkako barne-salaketa bat jaso dugula. Hortaz, dagokion barneko berme-prozedura aktibatu da.

Jasotako salaketaren edukia eta xedea jakinarazteko (kodearen zenbakia:), jarraian adierazten diren lekuan, datan eta orduan ospatuko den bilerara gonbidatzen zaitugu:

Jakinarazten dizugu ez agertzea egitateen ikerketa oztopatzeko egintzatzat har daitekeela.


Gure egungo "Sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko prozeduraren" kopia eranstean, zure informaziorako eta erreferentziarako.

Zamudion, 20..(e)koaren(e)(a)n.

Izpta.: (Izena eta lanpostua)

Jaso dut (data eta sinadura):

V. ERANSKINA: ONDORIOEN TXOSTENA

	SEXU-JAZARPENAREN ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENAREN AURKAKO PROTOKOLOA ONDORIOEN TXOSTENA - AHOLKULARITZA KONFIDENTZIALA
---	---

Kodea:	
Salaketaren data:	

1. SALAKETAREN DATUAK

Biktimaren datuak: (Izen-abizenak)	
---------------------------------------	--

Salatzailearen datuak (izen-abizenak)	
---------------------------------------	--

Salatutako pertsonaren datuak (izen-abizenak)	
--	--

Salatutako gertaeren deskribapena:

--	--

2. BURUTUTAKO EGINBIDEAK (*Zehaztu burututako jarduketak eta frogak, datak, lekukoen adierazpena, dokumentu-frogen analisia, etab.*)

Kautelazko neurriak aplikatu behar izan dira?

BAI

EZ

Hala bada, zehaztu zeintzuk:

3. ATERATAKO ONDORIOAK

Jazarpena egiaztatu al da?	<input type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> EZ
Salaketa artxibatu ahal da?	<input type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> NO
Jazarpen-mota	<input type="checkbox"/> Sexu-jazarpena	<input type="checkbox"/> Sexuagatiko
Arau-haustearen tipifikazioa	<input type="checkbox"/> Larria	<input type="checkbox"/> Oso larria
Inguruabar astungarririk al dago?	<input type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> NO

Hala badagokio, zehaztu:

Diziplina-neurriak ezarri behar dira?

BAI

NO

Hala badagokio, diziplina-neurrien proposamenak:

Bestelako ekarpenak (beharrezkoak badira):

Zamudion, 20..(e)koaren(e)(a)n.

Sinadurak (aholkularitza konfidentzialeko kideak)

Izpta.:

Izpta.:

Izpta.:

Izpta.:

Izpta.:

VI. ERANSKINA - PL_ DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

ARDURADUNA NOR DEN:

1. Tratamenduaren arduraduna: ITELAZPI, S.A.
2. Harremanetarako datuak:
 - Helbidea: Bizkaiko Teknologia Parkeko 101. eraikina, PK 48170 (Zamudio).
 - Telefono-zenbakia: 944032300.
 - Helbide elektronikoa: itelazpi@itelazpi.eus

XEDEA:

1. Tratamenduaren xedea: ITELAZPIren Aholkularitza Konfidentzian aurkeztutako salaketak ikertzea eta erabakitzea.
2. Datuak kontserbatzea: Ikerketak eta erabakitze prozesuak irauten duen artean.

LEGITIMAZIOA:

Aholkularitza Konfidentzialaren funtzionamenduari buruzko barne-araudia betetzea sexu-jazarpenagatiko edo sexuan oinarritutako jazarpenagatiko salaketa baten aurrean.

HARTZAILEAK:

Datu hauek aginte judicial edo polizialei eman dakizkieke.

ESKUBIDEAK:

Interesatuak datuetara sartzeko, haiek zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea gauzatzeko, bai eta haien tratamendua mugatzeko eta aurkaratzeko ere, harremanetarako datuetan adierazitako helbidera idazki bat bidaliz egin daitekeela.

Halaber, interesatuak datuak babesteko Agentzia eskudunean erreklamazioa jartzeko aukera izango du.

IDENTIFICACIÓN DE RESPONSABLE:

1. Responsable de Tratamiento: ITELAZPI, S.A.
2. Datos de contacto:
 - Dirección: Edificio 101 del Parque Tecnológico de Bizkaia, CP 48170, (Zamudio).
 - Teléfono: 944032300.
 - Correo Electrónico: itelazpi@itelazpi.eus

FINALIDAD:

1. Finalidad del tratamiento: Investigar y resolver las denuncias presentadas ante la Asesoría Confidencial.
2. Conservación de los datos: Mientras dure la investigación y el proceso de resolución.

LEGITIMACIÓN:

Cumplimiento de la normativa interna sobre funcionamiento de la Asesoría Confidencial ante una denuncia por acoso sexual o por razón de sexo.

DESTINATARIOS/AS:

Estos datos podrán ser cedidos a autoridades judiciales y policiales.

DERECHOS:

La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento, enviando un escrito a la dirección indicada en los datos de contacto.

La persona interesada, dispone igualmente del derecho a reclamar ante la Agencia de protección de datos competente.